

Euskadi: errealitatea VS populismoa

Iñigo Urkullu
Renteria



AZKEN urte hauetan bizitzen ari garen errealitateak erakutsi digu gaur egun ditugun arazo nagusiak sakanak eta globalak direla. Errealitate honen aurrean datuetan oinarritutako hausnarketa objektiboa zabaltzen saiatu naiz beti. Zuhurtziaz, gardentasunez eta apaltasun osoz. Hori da gizarteari zor dioguna. Aldiz, globalizazioarekin batera populismoaren eta demagogiaren hedapena ere ezagutzen ari gara, baita gure herrian ere. Arazoak ez ditut inoiz ukatu, baina pertzepzio interesatuetan oinarritutako errealitatea zabaltzen dutenen jarrera indar osoz salatzen

dut. Populismoen estrategia eza-guna da mundu osoan. Gizartearen parte batek entzun nahi duena adierazten dute bozgorailu bat jartzen zaien bakoitzean.

Gurean honakoa diote: zerbitzu publikoak gainbeheran daudela, sektore publikoan lan baldintzak okerrera doazela, administrazioak mugarik gabeko diru-zaku bat duela edo zerbitzu publikoen pribatizazioak etengabeak direla, besteak beste. Populismoek ez dute inolako datu objektiborik eskaintzen, ez dute inolako iturri-rik aipatzen.

Jarrera eta joera arduragabe hau arriskutsua da oso. Gure ongizatea kolokan jarri dezake. Ez guke jendea interes propioak defendatzeko erabili behar. Ez da zilegikoa jendea engainatzea.

Alde batetik, erakundeek ez dugu mugarik gabeko baliaiberik. Bestetik, Administrazio guztiak, hasiadalerra txikienetik Eusko Jaurlaritza arte, herritar guztien aurrez-

kiak modurik eraginkorrean kudeatzen saiatzen gara. Hala da, Euskadin eredu bat dugu, eta bere argi-ilun guztiakin, eredu horrek bere eraginkortasuna erakutsi du. Bereziki, momentu zailenetan. Oinarritzko printzipio batzuk nahi-taez bete behar ditugu: ezin dira zerbitzu guztiak publiko egin, hori jasanezina izango litzateke gure ekonomiarako. Ezin da dena administrazio publikoaren esku utzi. Hori bideraezina da. Erraza da esatea, “zerbitzu hau publiko bihurtu behar da. Pertsona hauek guztiak funtzionario publiko egin behar dira”. Erraza da hori esatea, baina ezinezkoa egitea. Galdera da: nola jasango du gure ekonomiak hori guztia urte gutxiren buruan?

Populismoei ondorio horiek guztiak berdin zaizkie. Populismoek epe laburrera bakarrik begiratzen diote. Beraien interes propioa defendatzen dute eta interes orokorra bailitzan moztortzen dute.

Jardun publikoan ardura dugunok oreka mantendu behar dugu. Epe laburrera eta etorkizunera begiratu behar dugu, gastuak eta diru sarrerak orekatu behar ditugu. Ezin da diru publiko guztia herri-tarron aurrezkiak-funtzionarioen nominak ordaintzeko bakarrik erabili. Ez da hori, behintzat, gure eredu. Gure baliaiberak mugatuak direla onartzen dugu eta, hori kontuan hartuta, gure zerbitzu publikoak eta langile publikoen lan baldintzak egunero hobetzen saiatzen gara. Hori bai, gizarte bezala aurrera egiteko aurrezteak, inbertsioak egitea eta enpresa

Zailtasunen aurrean, erantzuna eskaini dugu. Dena den, ez gaude konforme, hobetu beharra dugu. Hobetzen jarraitu behar dugu. Hori ere bada gure ereduaren ezaugarri bat

mundua babestea ezinbestekoa dela argi utziz. Horretan sinisten dugu.

Herritar guztion aurrezkiak den altxor publikoak handitzen jarraitzeko enpresak, kooperatibak edo langile autonomoak behar beharrezkoak ditugu. Aberastasuna eta enplegua sortzen duten enpresak behar-beharrezkoak ditugu. Guk eredu hau defendatzen dugu eta hori egiten jarraituko dugu. Izan ere, lankidetzak publiko-pribatuak gure ongizatea ekarri digu. Egun duguna sortzen lagundu digu.

Arazoak eta zailtasunak ditugula begi bistan dago. Baina horrekin batera, Euskadi azken hamar urte hauetan asko hazi dela ere egia da. Testuinguru oso zail batean lortu dugu. Krisien zurrumbilo amaigabe honetan aurrera egin dugu. Guztion artean, auzolanean. Datu objektiboek erakusten dute hori, ez pertzepzio interesatuek. Aztertu ditzagun datuak banan-banan. Euskadiko Barne Produktu Gordi-